

Euskal AEn, 2020an, I+Gn eginiko gastua serieko maximora iritsi da, 1.490 milioi eurora, pandemia-egoera gorabehera


BPG dela eta, % 2 gainditu da (% 2,08), Covid-19aren krisiak BPGn izandako efektu negatiboaren ondorioz, baina ez da I+Gko gastuan islatu

2020an, barneko I+G jarduerako gastua (ikerketa eta garapen teknologikoa) 1.490 milioi eurokoa izan zen, guztira, Euskal AEn; zifra hori I+Gko gastuan sekula izan den handiena izan da, EUSTATEk prestatu dituen datuen arabera.

Zifra horrek erakusten du aurreko urtean baino 8,6 milioi euro gehiagoko gastua egon dela – % 0,6ko hazkuntza–, eta, hori guztia, 2020an Covid-19ak eragindako krisialdia nagusi izan den arren.

Barneko I+G jarduerak 19.511 pertsonari eman zien enplegua, dedikazio osoaren baliokidetzan, 2020an; aurreko urtearen aldean, % 0,5eko beherakada egon zen. Ikertzaileetan, ordea, 13.629 pertsona dedikazio osoaren baliokidetzan; % 0,8 areagotu zen.

Barneko I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko Ehunekoa



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

BPGri dagokionez, Euskal AEko barneko I+Gko gastua % 2,08ra iritsi zen, 2020an. Aurreko urteko datuarekin alderatuta % 1,86 igoera garrantzitsu horren motiboa izan zen, nagusiki, pandemiak intzidentzia handiagoa izan zuela BPGn, I+Gko gastuan baino. Datu horiek Europar Batasuna 27aren (EB27) azken datuekin erkatzeko, 2019koak hartu behar dira kontuan; orduan, EB27 bere BPGren % 2,23 zen eta, Espainian, % 1,25.

Lurralde-xehetasunari dagokionez, egiaztatu da erkidegoko barneko I+Gko gastu osoaren % 47,3, 2020an, Bizkaian egin zela; % 42,6, Gipuzkoan, eta % 10,1, Araban. Esan behar da gastu hori Gipuzkoako BPGren % 2,63 dela; % 1,95ekoa, Bizkaiaren kasuan, eta % 1,35ekoa, Arabaren kasuan.

Euskal AEn eginiko barneko I+Gko gastuaren % 76,7 enpresen sektoreak exekutatu zuen

Barneko I+Gko gastua exekutatzeko duen sektorea dela eta, gehiena, % 76,7 (1.143,0 milioi euro), enpresek egin zuten; % 17,4 (258,7 milioi), goi-mailako irakaskuntzak, eta gainerako % 5,9a (88,3 milioi), administrazioaren mendeko zenbait erakundek.

Barneko I+Gko gastuaren exekuzioaren banaketa sektorial horri nahiko egonkor eutsi zaio, azken urteotan, aurten izan ezik administrazioaren sektorean. Aurreko urtearen aldean, hiru sektoreetako bik, enpresek eta goi-mailako irakaskuntzak, barneko I+Gko gastuan % 1,2ko eta % 1,9ko hazkuntza izan zuten, hurrenez hurren, eta administrazio publikoak, % 9,9ko beherakada.

Euskal AEn barneko I+Gko gastua, egikaritze-sekoreen eta fondoan jatorriaren arabera (mila euro). 2020

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzerritik etorriak
Guztira	1.490.038	509.663	33.910	812.860	7.663	125.941
Enpresak eta IAGEP	1.143.037	247.774	300	787.257	1786	105.921
Administrazio Publikoa	88.261	78.079	166	4.922	2.458	2.635
Goimailako irakaskuntza	258.740	183.810	33.444	20.682	3.419	17.385

IAGEP = irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Barneko I+Gko gastuaren finantzaketaren ikuspegitik, enpresek ikerketara 813 milioi euro bideratu zituzten, 2019an baino % 1,8 gehiago; alegia, finantzaketa osoaren % 54,6. Hala, lehen finantzaketa-iturria da. Finantzaketa publikoak, bestalde, 510 milioiko ekarpena egin zuen, eta barneko I+Gko gastu osoaren % 34,2 da; % 1,8 egin du gora.

Gainerako funtsen jatorria honako hau da: goi-mailako irakaskuntzaren sektorea (33,9 milioi), irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (7,7 milioi), eta atzerria (125,9 milioi). Hiru kasuetan, ekarpen horiek beherapenak dakartzate, aurreko urtearekin alderatuta, % 25,7koa, % 2,0koa eta % 1,9koa, hurrenez hurren.

Finantzaketa publikoaren jatorria dela eta, administrazio autonomoaren ekarpena nagusitzen da (411,7 milioi), zeina % 0,9 hazi baita aurreko urtearen aldean eta administrazio publikoak 2020an finantzatutako kopuru osoaren % 80,8 baita. Bestalde, administrazio zentralak (74,7 milioi) % 8,1 handitu du finantzaketa aurten, eta % 14,7ko parte-hartzea du finantzatutako kopuru osoan.

Azkenik, aldundiek eta tokiko administrazioek (23,3 milioi) % 4,6ko parte-hartzea izan zuten, baina ekarpena % 1,9 jaitsi zuten, aurreko urtearekin alderatuta.

Dedikazio osoan 19.511 **enplegatu** izan ziren. Exekuzio-sektoreen arabera: 13.801 pertsona, enpresetakoak (guztizkoaren % 70,7); 4.546, goi-mailako irakaskuntzakoak (% 23,3), eta 1.164, administrazio publikokoak (% 6,0). Ikertzaileak direla eta -13.629 ikertzaile-, gora egin dute, % 0,8, pertsonal osoaren % 0,5eko beherakadaren aldean.

I+Gn 2020an jardun zuen pertsonalaren % 36,5 emakumea izan zen

I+Gn 2020an dedikazio osoan jardun zuen pertsonalaren % 36,5 emakumea izan zen; ehuneko hori aurreko urtekoaren oso antzekoa da, pertsonal osoaren aldean ehuneko 0,1 puntu gutxiago. Hala ere, denbora-ikuspegi handiagoarekin, pisua ehuneko 3,1 puntu areagotu da, 2010arekin alderatuta, eta 4,8 puntu, 2005arekin alderatuta.

I+Garen exekuzio-sektorea kontuan hartuta ikusten da enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzaren sektorean dela emakumeen presentzia esanguratsuagoa, kantitateari dagokionez: 4.245 eta 2.237 emakume, hurrenez hurren, eta 648 emakume administrazio publikoaren sektorean. Hala ere, termino erlatiboetan, administrazio publikoan emakumeak pertsonal osoaren % 55,7 dira; goi-mailako irakaskuntzan, % 49,2, eta enpresen sektorean, % 30,8.

Gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2010-2020

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
I+G Gastuak											
Guztira (Milioi euro)	1.360	1.366	1.373	1.317	1.290	1.273	1.291	1.363	1.423	1.481	1.490
Urteko gehikuntza (%)	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6
BPGaren gaineko %	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,08(p)
Pertsonala (DOB)*											
Guztira	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274	19.619	19.511
Urteko gehikuntza (%)	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5
Lanpostu balioakideen gainean (‰)	18,8	19,3	20,9	21,1	21,3	20,3	19,5	19,8	20,1	20,1	21,7
Ikertzaileak (DOB)*											
Guztira (Milioi euro)	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165	13.520	13.629
Urteko gehikuntza (%)	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8
Lanpostu balioakideen gainean (‰)	11,9	12,2	13,2	13,8	13,8	13,4	13,0	13,4	13,7	13,9	15,0

*DOB: dedikazio osoko balioakidetzak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten elkarlanean jardun duten enpresa eta erakunde guztiei, eginiko ahaleginagatik; informazio-bilketa 2021eko apiriletik urrira bitartean egin da. Haien laguntzarik gabe, ez zatekeen posible izango.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62